



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko abenduaren 19a

53. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, dokumentazioa euskarri berrerabilgarrietan bidaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, MAPAC batzordeak egindako txostenei eta txosten horietan jasotako konklusioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako arkeologia-ondarea babesteko eta zaintzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, meatzaritzaren irudia hobetze aldera Nafarroako Gobernua eta Geoalcali eta Magna enpresak elkarlanean aritzeko asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andrea Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea (18. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa. Erregelamendu Batzordeak onetsia (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren aldaketa (20. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, dokumentazioa euskarri berrerabilgarrietan bidaltzeari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, dokumentazioa euskarri berrerabilgarrietan bidaltzeari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 4ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera parlamentarioa egin du (10-19/Pes-00087) dokumentazioa euskarri berrerabilgarrietan bidaltzeari buruz. Honako hau da erantzuna:

Nafarroako Gobernuak uste du (eta bere helburua hori da) Nafarroako Parlamentura igortzen duen informazioa jada formatu ireki eta berrerabilgarrietan egoten dela, oro har; besteak beste, galderan aipatutakoa erabiltzen da, PDF (Portable Document Format) izenekoa, zeina estandar ireki bat da, irakurketa eta edizioa ahalbidetzen dituzten aplikazioak dauzkana. Esate baterako, Libreoffice suitea, Apache Openoffice suitea, Microsoft Office suitea, Adobe suitea eta abarrekoak baliatzen dira, bai gisa guztietarako ordenagailuetarako (hainbat sistema eragile dituztenak), bai tabletetarako, sakelako telefonoetarako, SmartTV's-etarako eta abarretarako ere. Formatu estandar bat da, toki guztietan erabiltzen dena, zabala, hedatua eta testu-edukia berrerabiltzeko aukera osoa ematen duena.

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

## **Galdera, MAPAC batzordeak egindako txostenei eta txosten horietan jasotako konklusioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, MAPAC batzordeak egindako txostenei eta txosten horietan jasotako konklusioei buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 27ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19/PES-00084 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

#### **SARRERA**

MAPAC ekimenak bilatzen du laguntzaren eta arlo klinikoaren praktikaren egokitasuna hobetzea desegokiak izan daitezkeen prestazioak identifikatuz, gomendioak eginez eta halakoak gutxitzeko ekintzak proposatuz. Halaber, bilatzen du ordezko aukera efizienteagoak edo balio kliniko handiagoak erabil daitezkeen sustatzea. Ekimen honek bilatzen dituen helburuen artean dago beharrezkoak ez diren interbentzioetako bigarren mailako iatrogenia saihestea eta praktika klinikoaren aldagarritasuna gutxitzea. Egokitasuna hobetzearena prozesu sistematiko eta esplizitua da, eta elementu nagusizat ditu eskura dagoen ebidentzia zientifikoari buruzko epai kritikoa eta osasun-laguntzaren esparru desberdinetako klinikarien parte-hartze aktiboa; klinikari horiek osasunaren, kudeatzaileen eta metodologia-adituen arloak ordezkatuko dituzte.

Ikerketa Biomedikorako Zentroak Epidemiologiaren eta Osasun Publikoaren Sarean (CIBERESP) bultzatutako proiektu bat da. Carlos III.a Osasun Institutuak sortu eta babestutako partzuergo publiko bat da, zeinaren egitekoa baita sarean ikertzeko egitura bat sortzea Espainian, Osasun Publikoaren arloko politikak garatzeko. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Berrikuntza eta Antolaketa Atalak CIBERESPekin

lankidetzan jarduten du, beste arlo batzuen artean, MAPAC proiektuan.

2018-06-08an, MAPAC proiektua hasi zen O-NOZen. Hartan, ospitale eremuko eta oinarrizko osasun laguntzako sendagile espezialistak, informazio-sistemetak profesionalak, kudeaketa klinikoan laguntzen zutenak, laguntzaren eraginkortasunerako eta segurtasunerako zerbitzukoak eta O-NOZeko erizain eta farmazialariak elkartu ziren laguntzaren praktika hobetzeko aukera identifikatzeko.

Prozesua MAPAC taldea osatzen duten profesionalak, kanpoko profesionalak, O-NOZeko gerentziak eta Eriari Osasun Laguntza emateko Zuzendaritzak proposatutako ekimenekin hasi zen. Berrikuntza eta Antolaketa Atalaren babesarekin, proposatutako gaiei buruz eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoaren berrikuspenak egiten dira, eta txostenen emaitzei buruz eztabaidatzen da eta hobekuntza-proposamenak adosten dira, zeinak gero O-NOZeko arduradunei helarazten baitzaizkie bidezkoak diren hobekuntza-neurriak har ditzaten. Geroztik, identifikatutako ebidentziaren zabalkundea egiten da bai eta txostenaren konklusioak ere, eremu desberdinetan.

Gainera, prozesuaren hasieratik eta proposamenak ezartzen diren arte, kasuko gaian inplikaturik egon daitezkeen kanpoko beste zerbitzu eta profesional batzuei gonbita egiten zaie MAPAC taldean parte hartzeko. Bestetik, neurri egokiak ezarri ondoren, estrategia bakoitzean lortutako emaitzak monitorizatzen dira, haien inpaktua eta egokitasuna analizatzeko. Prozesu jarraitu bat da, zeinean ebidentzia berri baten agerpenak ekar baitezake beharrezkoa den kasuetan hartutako estrategia birplanteatzea edo berrebaluatzea.

MAPAC batzordea 2018-06-08an hasi zen lanean, eta 2019-03-14an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 228/2019 Ebazpena onetsi zen, zeinaren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Praktika Asistentzial eta Klinikoa Hobetzeko Batzordea sortu baitzen. Kontsulta-izaera duen batzorde bat da, bere gomendioak O-NOZeko zuzendari kudeatzaileari helarazten dizkiona, azken horrek egokitzen jotzen dituen jarraibideak argitara ditzan.

2019ko maiatzaren 27an, O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen 537/2019 Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez Praktika Asistentzia eta Kliniko Hobetzeko Batzordearen osaera ezarri baitzen.

2019-04-24an, O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen 11/2019 Jarraibidea argitaratu zen, zeinaren jasotzen baitira MAPAC batzordeak D bitaminaren baheketari buruz eta traumatologiako hainbat indikaziotan plaketetan aberastutako plasma erabiltzeari buruz emandako gomendioak.

MAPACen jarduerak alboko proiektuak ere sortzen ditu. Esate baterako, plaketetan aberatsa den plasmaren eraginkortasunari eta segurtasunari buruz egindako ebaluazioan oinarrituta, koherentzia-erak detektatu ziren teknika hori eraginkorra zela ondorioztatzen zuen entsegu kliniko batean, azterlanaren egileen beraien eskutik lortutako

azterlaneko informazio gehigarriari jarraituz. Berrikuntza eta Antolaketa Atalak lankidetzan jarduten du RIAT (Restoring Invisible and Abandoned Trials) izena duen nazioarteko ekimen batekin. Artikuluaren egileei beren artikuluaren emaitzak eta ondorioak zuzendu beharko liratekeela jakinarazi ondoren, zuzenketa hori egiten ez bada, Berrikuntza eta Antolaketa Ataleko kideek hura berriz argitaratuko dute, protokoloari egokitzuz eta entsegu klinikoaren emaitza errealak aurkeztuz. Artikulua zuzentzearen protokoloa argitaratu da dagoeneko British Medical Journal aldizkarian, "Call to action" atalaren barruan.

Jarraian, txosten hau egiteko datan egin diren, martxan dauden eta hasi gabe dauden proiektuak deskribatzen dira. Amaitutako txostenen kasuan, hartutako neurriak ere azaltzen dira, baita neurri horiek ezarri ondoren lortutako emaitzak ere.

## 1. AMAITUTAKO PROIEKTUAK

Amaitutako proiektuen zerrenda:

Proposamenaren data	Txostena	Eskatzailea
2018/09/28	D bitaminaren baheketarako indikazioak	Adriana Rivero (Laborategia)
2018/10/19	Palivizumab sendagaia erabiltzea arnas birus sintizialaren (VRS) bidezko infekzioaren immunoprofilaxian	Ainhoa Iceta (Pediatria)
2018/11/16	Plaketez aberastutako plasma (PRP) erabiltzea Traumatologiako hainbat indikaziotan	Javier Martínez de Morentin; Javier González (Traumatologia)
2018/10/10	Kirurgia blokeko janzkera eta infekzio-arriskua	Jon Ariceta (Kirurgia orokorra)
2019/04/08	Hidroxietil almidoiaren (HEA) soluzioak perfusiorako erabiltzea	Jesús Berjón (Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari medikoa)

### 1.1. D bitaminaren baheketarako indikazioak

#### Justifikazioa

Adriana Rivero, Nafarroako Ospitaleguneko Analisi Kliniko Berezien Ataleko buruak bere kezka azaldu zion MAPAC batzordeari Nafarroako Ospitaleguneko eta oinarritzko osasun laguntzako fakultatiboen D bitaminaren analisi-eskaerak gora egin duelako eta eskaera askoren egokitasuna dela-eta zalantzak dauzkalako.

#### Txostenaren konklusioak

D bitaminari buruzko determinazioak honako kasu hauetan dago justifikatuta:

- Lehen mailako / bigarren mailako hiperparatiroidismoaren diagnostiko diferentziala

- Balizko hipoparatiroidismoa, hipo / hiperkaltzemia edo hipo / hiperfosfatemia

- Malabsortzio sindromea

- 65 urtetik gorako gaixo instituzionalizatuak, etxetik ateratzen ez direnak edo ospitalizazio luzeak pairatzen dituztenak

Gaur egun ez dago behar adinako ebidentziarik D bitaminaren baheketa justifikatzen duenik honako egoera hauetan:

- Arrisku-faktorerik gabeko populazio orokorra, sintomarik gabea

- Instituzionalizaturik ez dagoen adineko populazioa

- Giltzurruneko gutxiegitasuna, alterazio paratiroideo larririk edo progresiborik gabea
- Gibelego gutxiegitasuna
- Osteoporosia, osteopenia edo osteomalazia
- Fosfatasia alkalinoaren igoera
- Arrisku-faktorerik gabeko emakumeen haurdunaldia
- Epilepsiaren aurkako sendagaiak, kolestiramina, kolestipola edo diuretiko tiazidikoak hartzea
- Haur obesitatea
- Ugalkortasun arazoak dituzten pertsonak

• D bitaminaren eskasiaren arrisku-faktorerik gabeko pertsonen balorazio nutrizionala

**Hartutako neurriak:**

- O-NOZeko zuzendari nagusiaren jarraibidea.

2019ko apirilean, O-NOZeko zuzendari nagusiaren jarraibide bat argitaratu zen (11/2019) MAPAC batzordeak egindako gomendioak beteazazteko.

- Historia kliniko elektronikoan iragazkiak eta oharra jartzea.

Gaur arte, honako neurri hauek hartu dira, historia kliniko elektronikoaren tresnen bitartezko preskripzioan laguntza ematearekin lotuta daudenak.

Data	Neurria
2018ko ekainetik abendura	25(OH)-D <i>Geriatría</i> profiletik kentzea
	25(OH)-D <i>Pediatría</i> profiletik kentzea
	25(OH)-D eskaria eramatea “Bilaketa” eskari elektronikoaren erlaintzera
	D bitamina <i>Dialisia</i> profiletatik kentzea
2019ko urtarrila - urria	Eskaria egin ondoren, probari buruzko iruzkin bat egiteko aukera gehitu da
	HCln MAPACen konklusioak ikusten dira (noiz eskatu eta noiz ez)
	25(OH)-D kendu da <i>Antzutasun</i> profiletik- Iruñeko Barrutia
	25(OH)-D kendu da <i>Profil nutrizional pediatrikotik</i> - Iruñeko Barrutia
	25(OH)-D kendu da <i>Profil nutrizional pediatrikotik</i> - Tuterako Barrutia
	25(OH)-D kendu da <i>Pediatriako gehiegizko pisua</i> profiletik
25(OH)-D kendu da <i>Profil inflamatorio zeliakotik</i> - Iruñeko Barrutia	

ATENEAREN kasuan, ezarri beharreko neurriak hemendik gutxira ezarriko dira, zeren eta oinarriko osasun laguntzako historia klinikoa gaurkotu arte itxaron behar izan baitugu haiek ezartzeko.

- D bitaminari buruzko artikulua bat argitaratu dugu

Helduetan D bitaminaren baheketari eta suplementazioari buruzko artikulua bat argitaratu dugu Nafarroako “Boletín de Información Farmacoterapéutica” (BIT) aldizkarian.

- Txostenaren emaitzei buruzko zabalkundea

2019ko apirilean, Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuak antolatutako “Temas Caudentes de Farmacoterapia” ikastaroaren barruan, MAPAC ekimena zabaldu zen, eta D bitaminaren baheketari eta suplementazioari buruzko ebidentzia azaldu zen, bai eta txostenaren konklusioak ere.

- Hartutako neurrien emaitzak

Esku-hartzea baino lehentxeago, O-NOZen D bitaminarekin lotutako eskaeren % 15eko igoera gertatu zen; esku-hartzea eta 10 hilabetera, gutxi gorabehera % 18ko jaitsiera bat egiaztatu zen.

Esku-hartzearen aurreko egoera:

ALDIA	D bitaminari buruzko test kopurua	Aldea
2017ko urt-urria	40.745	% +14.8
2018ko urt-urria	46.739	


Esku hartzearen aurreko eta geroko egoera:

ALDIA	D bitaminari buruzko test kopurua	Aldea
2017ko aza-2018ko abu (esku-hartzea baino lehen)	45.010	% -17.7
2018ko aza-2019ko abu (esku-hartzea eta gero)	37.061	

Egiaztatu da, era berean, D bitaminaren determinazioak urtaro-patroi bati jarraitzen diola. Hala eta guztiz ere, beheko irudian ikus daiteke ezen,

esku-hartzearen ondoren, D bitaminarekin lotutako eskaeren jaitsiera bat gertatu dela O-NOZen, urteko hilabete edo garai guztietan.

### 25(OH)-D eskarien bilakaera Osansubidean, hilez hil



• Eragin ekonomikoa

Kontuan hartuta 2018ko urritik (esku-hartzearen data) 2019ko abuztura (10 hilabete) 7.949 determinazio gutxiago egin direla esku-hartzearen aurreko urteko hilabete berdinekin alderatuta, honako hau izanen litzateke sistema publikorako zenbatetsi den zuzeneko aurrekia: 7.949 x 3,81 € = 30.285,69 €-ko gastua ekidin da (3.029 €/hila-bete).

Eragin ekonomikoa kalkulatzeko, soilik testaren prezioa (3,81 €) hartu da kontuan, beste kon-

tzeptu batzuk (eskulana, amortizazioa eta abar) aintzat hartu gabe.

**Aurreikusitako neurri gehigarriak:**

ATENEAn preskripzioa laguntzeko tresnak jarriko dira 2019ko azken hiruhilekoan eta 2020ko hasieran, D bitaminaren baheketarako ezarri diren iragazki eta oharrek direla eta. Espero dugu neurri horiek lagungarri gertatzea esku-hartzearen eragina handitzeko, HClIn (ospitaleko historia klinikoa) neurriak ezartzen hasi eta lehenengo 10 hilabete-etan izandako esku-hartzean jada ikusi dugunaren gaineratik.

1.2. Palivizumab sendagaia erabiltzea arnas birus sintizialaren (VRS) bidezko infekzioaren immunoprofilaxian

#### **Justifikazioa**

Nafarroako Ospitaleguneko Pediatria Zerbitzuko buru Ainhoa Ictak MAPAC batzordeari jakinarazi zion zalantzarik bazuela palivizumab sendagaia erabiltzeari buruz arnas birus sintizialaren (VRS) bidezko infekzioaren immunoprofilaxian. Kontua da palivizumab sendagaia ematen zaiela VRSz kutsatzeko arriskua duten haurrei, birus hori agertzeko aldia baino lehenago. Helburua da arrazoi horrengatik ospitalizazioak ekiditea eta VRSren bidezko infekzioaren ondoriozko morbi-mortalitatea gutxitzea.

Pediatria Zerbitzuak erabilera-protokolo bat badauka, eta nahi zuten jakin ea bat zetorren gaiari buruzko ebidentzia zientifikoarekin. Sendagaiaren kostu ekonomikoa hain handia da (423.000 euro inguru 2017an), non profilaxia eskatu zaien haur guztiei egun bererako ematen baitzaie hitzordua. Sendagaia guztiei aldi berean emateko modu horrek bidea ematen du bialak hobeki aprobetxatzeko.

#### **Txostenaren konklusioak**

Pediatria Zerbitzuaren egungo protokoloa gaur egungo ebidentzien arabera da. Hala eta guztiz ere, deigarri gertatzen da 1999an onartutako sendagai bat dela, eta kalitate eskaseko ebidentzia zientifikoa duela. Ondorengo urteetan indikazio horretarako garatutako antzeko sendagaiak ez ziren onartu.

#### **Hartutako neurriak:**

Gomendatzen da arnas birus sintizialaren bidezko infekzioaren immunoprofilaxirako Pediatria Zerbitzuaren egungo protokoloari eustea.

Europako Medikamentuaren Agentziari (EMA) eskatu zaio informazio osoa eman dezan pibot-erako entsegu kliniko nagusiari buruz, hau da, ebaluatutako indikazioan medikamentu horren erabilera onartzea justifikatzen duen horri buruz: IMPACT-RSV entsegu ("Palivizumab, a Humanized Respiratory Syncytial Virus Monoclonal Antibody, Reduces Hospitalization From Respiratory Syncytial Virus Infection in High-risk Infants").

Eskariaren erregistroa: Ask EMA - (ASK-49535) Clinical Study Report Palivizumab request

Data: 2018/12/17

#### **Aurreikusitako neurri gehigarriak:**

EMAREN dokumentazioa jasotzen dugunean, hura ebaluatu eta erabakiko dugu bidezkoa den

protokoloan aldaketaren bat egin dadin planteatzea, bai eta EMARi palivizumab sendagaiaren erabilera buruzko erregulazio-neurriren bat har dezan proposatzea ere. Gaur arte ez dugu EMATik jaso aipatutako entsegu klinikoari buruzko txostena. Jada erreklamatu egin diogunez, adierazi digute hori baino lehenago beste lan batzuk daukatela esleituta eta itxaron egin beharko dugula. Gaur den egunean, ezin dugu aurreikusi noiz edukiko dugun informazio hori.

1.3. Plaketetan aberatsa den plasmaren indikazioak

#### **Justifikazioa**

Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Kirurgia Ortopedikoaren eta Traumatologiaren Zerbitzuko buru Javier Martínez de Morentinek eta Nafarroako Ospitaleguneko Goiko Gorputz-adarren Ataleko buru Javier Gonzálezek beren kezkek azaldu dituzte Traumatologiako berezko hainbat indikaziotan plaketetan aberatsa den plasmaren erabileraren eraginkortasunari eta segurtasunari buruz.

#### **Txostenaren konklusioak**

Gomendatzen da ez plaketetan aberatsa den plasma, ez eta haren deribatua ere, erabiltzea honako indikazio hauetan, jokabide hori babesteko ebidentzia sendorik sortzen ez den bitartean.

- Tendinopatiak
- Artrosiak
- Pseudoartrosiak
- Giharretako lesioa

Aipatu berri ditugun indikazioetan plaketetan aberatsa den plasma erabiltzea murriztuta dago Nafarroako Ikerketa Klinikoaren Batzorde Etikoak behar bezala baimendutako azterlan klinikoaren esparrura.

#### **Hartutako neurriak:**

- Osasun barrutietako traumatologia zerbitzuekiko bilera bereziak

2018-12-18an, bilera bat egin zen Lizarrako García Orcoyen Ospitalean, Berrikuntza eta Antolaketa Atalak egindako txostenaren zirriborroaren edukari buruz eztabaidatzeko.

2018-12-21ean, antzeko beste bilera bat egin zen Nafarroako Ospitalegunea-D-n (Ubarmin Klinika), eta hartan Nafarroako Ospitaleguneko Kirurgia Ortopedikoaren eta Traumatologiaren Zerbitzuko buru Ángel Manuel Hidalgo egon baitzen. Bilera hartara traumatologo asko joan ziren. Azpiespezialitateetako ordezkari batzuek emaitza batzuk erakutsi zituzten plaketetan aberatsa den

plasmaren tratamendua jasotako pertsonen kasu hautatu batzuk azalduz.

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Traumatologia Zerbitzuko buru Rosa González Panisello andrea 2019-01-18an Iruñera etorri zen MAPAC batzordearen bilera batean parte hartzera, zeinean proiektu hori landu baitzen.

Behin txostenaren zirriborroa inplikaturako aldeekin eztabaidatu ondoren, behin betiko txosten bat egin zen, eta hura MAPAC batzordeak onetsi eta berretsi zuen.

- O-NOZeko zuzendari nagusiaren jarraibidea.

2019ko apirilean, O-NOZeko zuzendari nagusiaren jarraibide bat argitaratu zen (11/2019) MAPAC batzordeak egindako gomendioak beteazteko.

- Hartutako neurrien emaitzak

O-NOZeko zuzendari nagusiaren jarraibidearen ondorioz eta Nafarroako Ospitaleguneko Traumatologia Zerbitzuko buruarekin ados jarrita, tratamendua amaitzeko baimena eman da tratamendu hori jarraibidea eman aurreko datan hasita zeukaten gaixoen kasuan (plaketan aberastutako plasmaren hiru dosi eman ohi dira, denbora-tarte batzuk utzita). Halaber, tratamendua eman zaie hura administratzeko hitzordua jasota zuten gaixoei edo hitzorduaren zain zeudenei. 11/2019 jarraibidea argitaratu zenetik, jada ez da plaketetan aberastutako plasmarekiko tratamendua eskaintzen aipaturako patologietan beste inongo gaixori. Horrenbestez, behin jarraibidearen aurretik abian zeuden tratamenduak amaitu ondoren, Exatech

Iberia SL merkataritza-kita erosteari utziko zaio, aipaturako indikazioetarako; izan ere, kit horrekin egiten da zirkuitu itxian plaketetan aberastutako plasma lortzeko prozesua.

- Eragin ekonomikoa

2018an, plaketetan aberastutako plasma lortzeko merkataritza-kiten kostu ekonomikoa 250.000 euro baino gehixeago izan zen. 2019ko urtarrila-iraila aldian, kostu hori 87.000 eurokoa izatera pasa da. Urte osora estrapolatuz gero, 116.000 euro inguruko kostua lortuko dugu. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta 2019ko bigarren erdialdetik aurrera gaixoei hitzordua emateari utzi zaiola, plaketetan aberastutako plasma ekoizteko kiten gastua txikiagoa izanen da eta aurreko urtearekin alderatuta kalkulatu da 150.000 euroko aurrekia egonen dela. Hurrengo urteetarako kalkulatu da aurrekia urtean 200.000 euro ingurukoa izan daitekeela.



Bestetik, plaketetan aberatsa den plasma baliatzeak eskatzen du ebakuntza-gela erabiltzea, sendagile espezialisten denbora, erizaintzako langileak, berrebaluazioko kontsultak eta abar. Praktika hori erabiltzeari uzteak aurrezki bat dakar ebakuntza-gelen okupazioan, ospitale-ohetan, langileen denboran eta era askotako materialetan, eta horrek berekin dakar guztizko aurrezki urtean 200.000 eurotik gora egotea arestian aipaturakoean.

Honako hau da plaketetan aberatsa den plasma lortzeko kitetan egindako gastuaren bilakaera. O-NOZ

	2016	2017	2018	2019 (urt-ira)	2019*
Kopurua (zenbat ale)	28	517	536	256	341
Zenbatekoa (eurotan)	13.198	243.696	251.090	87.101	116.135

\* 2019ko urtarriletik irailera arteko datuak, urte osora estrapolatuak





#### **Aurreikusitako neurri gehigarriak:**

Gaur den egunean, Nafarroako Ospitalegunea-D-ko Traumatologia Zerbitzuarekin batera lan egiten ari gara plaketetan aberatsa den plasmaren erabileraren eraginkortasuna ebaluatzen trauma-tologiako indikazio jakin batzuetan.

Bestetik, txostena egiteko prozesuan zehar, jakin genuen ezen, argitaratutako entsegu kliniko batean, non belauneko artrosiko kasuetan plaketetan aberatsa den plasmaren deribatu baten eraginak ebaluatzen baitziren azido hialuronikoaren eraginekin alderatuta, haren eraginkortasunaren aldagai nagusia aldatu zen azterlana jada amaituta zegoela, kasuko komite etikoak horri zegokion

zuzenketa justifikatu eta onetsi gabe. Egileek ondorioztatu zuten plaketetan aberatsa den plasma azido hialuronikoa baino hobea zela, nahiz eta errealitatean, protokoloko aldagai nagusiari eutsi izan balitzaio, ez ziren aurkituko estatistikoki aipatzeko moduko aldeak alderatzaileari dagokionez.

Berrikuntza eta Antolaketa Atalak entseguren jatorrizko datuak eskuratu ahal izan zituen, erabaki zuen proiektu bat abiatzea azterlanaren datu errealak lehengoratzeko, RIAT (Restoring Invisible and Abandoned Trials) ekimenaren bitartez. Literatura zientifikoan jada argitaratu da entsegua lehengoratzeko asmoa daukagula, eta lehengoratzeko hori zein protokolarekin egiten den.

thebmj Research - Education - News & Views - Campaigns - Archive For authors Jobs Hosted Search

Analysis Open access

Restoring invisible and abandoned trials: a call for people to publish the findings

BMJ 2013 ; 346 : doi: <https://doi.org/10.1136/bmj.f2865> (Published 13 June 2013)  
Cite this as: BMJ 2013;346:f2865

Article Related content Article metrics Rapid responses Response

**Call to action: RIAT restoration of a misreported clinical trial on Plasma Rich in Growth Factors**

We write to issue a call to action to restore the reporting of a randomized clinical trial on Plasma Rich in Growth Factors (PRGF-Endoret®) sponsored by BTI Biotechnology Institute. The concerned trial has been cited as follows:

Sánchez M, Fiz N, Azofra J, Usabiaga J, Aduriz Recalde E, García Gutiérrez A, Albillos J, Gárate R, Aguilera JJ, Padilla S, Orive G, Anitua E. A randomized Clinical trial evaluating Plasma Rich in Growth Factors (PRGF-Endoret®) versus hyaluronic acid in the short-term treatment of symptomatic knee osteoarthritis. *Arthroscopy* 2012;28(8):1070-8.

**27 March 2019**  
Luis Carlos Salz  
Researcher  
Juan Erviti, Leire Leache, Unit of Innovation and Organization, Navarre Health Service  
Unit of Innovation and Organization, Navarre Health Service  
Avenida del Ejército 2, 31002, Pamplona, Spain

Espero dugu 2020. urtean zehar publiko egin ahal izatea bertsiio zuzendua, entseguaren aurrezehaztutako aldagai nagusiaren emaitzekin.

1.4. Kirurgia blokeko janzkera eta infekzio-arriskua

#### Justifikazioa

Nafarroako Ospitaleguneko Prozesu Kirurgikoen zuzendariorde Jon Aricetak MAPAC batzordeari azaldu zion kezkatuta zegoela ebakuntza-geletako langileen jokabideekin, ebakuntza-geletan erabiltzen duten janzkerari dagokionez, janzkera kirurgikoa eremu esteriletatik kanpo erabiltzeari dagokionez eta profesionalen irudi korporatiboari dagokionez, besteak beste. MAPAC batzordeari ebaluazio bat eskatu zion profesionalak erabiltzen duten janzkerak bakterioen kutsatzea dela-eta izan dezakeen eraginari buruz, eremu kirurgikoko infekzioen eraginari buruz eta irudi korporatiboari buruz.

#### Txostenaren konklusioak

Aztertutako informazioak erakusten du ezen ebakuntza-geletarako janzkeraren kudeaketa optimizatzeko edo hobetzeko neurriek eragin positibo bat izan dezaketela ingurune horretako bakterio-kutsaduran. Hala eta guztiz ere, kasu gehienetan, ez da informaziorik ematen esku-hartze horien eraginaren tamainari buruz. Eskura dugun ebidentzia mugatuak ez du demostratu horrek berekin dakarrenik ebakuntza-eremuan kutsaduren intzidentzia txikiagoa izatea.

Etorkizunean, entsegu kliniko aleatorio eta kontrolatuak egin lirateke, haien bitartez aztertzeko nolako eragina duen janzkerak kirurgia-eremuko infekzioetan eta intereseko beste aldagai kli-

niko batzuetan; esate baterako gaixoak oneratu bitarte iragan beharreko denbora, zainketa intentsiboko unitateetako egonaldia, ospitalizazio-aldia-iren iraupena eta heriotza-tasa.

Janzkerak irudi korporatiboan duen eraginari dagokionez, azterlan gehienek ondorioztatzen dute sendagilearen janzkerak eragina duela gaixoen pertzepzioan, eta, oro har, gaixoek nahiago izaten dutela sendagileek janzkera berariazkoa erabil dezatela, batarekin nahiz gabe.

#### Hartutako neurriak:

Bilera bat egin genuen Nafarroako Ospitaleguneko Prebentzio-medikuntzako eta Higieneko Zerbitzuarekin, txostenaren zirriborroaren emaitzak partekatzeko behin betiko txostena idatzi eta hura MAPAC batzordeak berretsi baino lehen.

Prozesu Kirurgikoen zuzendariorde asistentzialak, bere arloko erizaintzako arduradunekin ados jarrita, erabaki zuten ez zela neurri gehigarrik hartu behar gai honetan, momentuz.

Eragin ekonomikoa:

Bat bera ere ez

#### Aurreikusitako neurri gehigarriak:

Bat bera ere ez

1.5. Hidroxietil almidoiaren (HEA) soluzioak perfusiorako erabiltzea

#### Justifikazioa

Hidroxietil almidoia (HEA) bolumen-hedatzaile bat da, hemorragia larriko egoeretan erabiltzen dena. Gaixo kritikoetan eta sepsia dutenetan HEA erabiltzearekin lotutako giltzurruneko kaltearen eta heriotzaren jakinarazpenak direla-eta, 2013. urte-

an murriztapen berriak sartu ziren HEA egoera horietan erabiltzeari dagokionez. Hala eta guztiz ere, HEA soluzioak erabiltzeari buruzko bi azterlanek erakutsi zuten ez zirela murriztapen horiek betetzen eta HEA soluzioak erabiltzen jarraitzen zela gaixo kritikoekin eta sepsia zutenekin.

2018ko urtarrilean, EMAren Pharmacovigilance Risk Assessment Committee (PRAC) erakundeak gomendatu zuen HEA soluzioen merkaturatzeko baimena etetea. Hala eta guztiz ere, "Co-ordination Group for Mutual Recognition and Decentralised Procedures-Human" (CMDh) (Elkarren aitortzarako eta prozedura deszentralizatuetarako koordinazioko talde europarrak) erakundeak, zeina Europako medikamentuen agentzia guztiek osatzen baitute, proposatu zuen medikamentuaren merkaturatzea ez etetea eta arriskuak ahal den guztian gutxitzeko neurri-konbinaketa bat ezartzeko.

Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari asistentzial Jesús Berjónnek txosten bat eskatu zion MAPAC batzordeari, balora zezan ea bidezkoa zen Nafarroako Ospitalegunean HEA erabiltzeari uztea, edo hura erabiltzen jarraitu behar ote zen, EMAk proposatutako neurri murriztaileak aplikatuz, edo are murriztapen handiagoak ere.

#### **Txostenaren konklusioak**

Oro har, erabilgarri dagoen ebidentziari eta nazioarteko erakunde eta antolamendu desberdinen gomendioei jarraituz, fluidoan bitartezko berrizteko soluzio kristaloideak erabiliz egin beharko litzateke lehenengo neurri gisa, eta soluzio koloideak, berriz, erreserbatu beharko liriateke kristaloideak administratuz emaitza onik lortzen ez den egoerarako.

Soluzio koloideen motari dagokionez, HEA kontraindikaturatuta dago, bestak beste, gaixo kritiko- en kasuan, giltzurruneko funtzioa eta koagulazioa aldatuta duten gaixoen kasuan eta sepsia duten gaixoen kasuan. Azken kasu horietan, HEA lotzen da giltzurruneko akats akutua gertatzeko eta giltzurruna ordeztzeko terapiaren arrisku handiagorekin.

Gaixo kirurgikoen kasuan eta traumatismoa izan eta koloideak hartzeko beharra duten gaixoen kasuan, nahiago izatekoa izanzen litzateke bestelako soluzio koloideak erabiltzea HEA erabili beharrean, ahal den neurrian. Baldin eta uste bada HEA erabili behar dela, eman ahalko da baldin eta gaixoak egoera kritikoan ez badaude edo gil-

tzurruneko edo koagulazioko alteraziorik ez badute.

Erditze ondorengo hemorragiako kasuetan eta gaixo pediatrikoen kasuan ezin izanzen da soluzio koloideen mota zehatzen bat gomendatu, beste baten ordeztuz.

Hesteetako polipoen erresekzio endoskopikoari dagokionez –Nafarroako Ospitaleguneko Behazuneko eta Pankreako Patologia Ataleko buru eta MAPACeko kide den Federico Boladok hura ere baloratzea eskatu baitzuen–, soluzio biskatsuen erabilera lehenetsi beharko litzateke kristaloideen aurretik. Polipoen erresekzioa egiteko HEA soluzioak mukosazpian administratzeari dagokionez, ez da fitxa teknikoan baimendutako indikazio bat, eta haien preskripzioa Sarbide Kontrolatua programaren bidez murriztuta dago. Horrenbestez, ahal den neurrian, nahiago izatekoa litzateke bestelako soluzioak erabiltzea HEA erabili beharrean; esate baterako, destrosa edo gelatina.

#### **Hartutako neurriak:**

HEAren erabilerari buruzko balizko neurri murriztaileek ukitutako zerbitzu tekniko guztiei gonbita egin zitzaizen MAPAC batzordean pate hartzeko; besteak beste, Nafarroako Ospitaleguneko Anestesia, Konorteratze eta Minaren Terapiaz Zerbitzuari, Nafarroako Ospitaleguneko Obstetria eta Ginekologia Zerbitzuari, Nafarroako Ospitaleguneko Digestio Zerbitzuari, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuari eta Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuari.

Erabaki zen Digestio Zerbitzuan HEA ez erabiltzea hesteetako polipoen erresekzio endoskopiko egiteko. Txostena onetsi ondoren, gelatinak erabili ziren haren ordeztuz.

HEAren erabilera Anestesia eta Ginekologiako sendagile espezialistentzat murrizten da, baina farmako hori erabiltzeko egiaztatzea lortu beharko dute, EMAk proposaturiko on line erako prestakuntza ikastaroa gaindituz.

Nafarroako Ospitaleguneko Farmazia Zerbitzuko Ferrán Capdevilla izendatzen da HEA erabiltzearen eta behar bezala egiaztatutako pertsonen, legez baimendutako baldintzetan, erabiltzen dutela egiaztatzearen arduradun gisa.

#### **Eragin ekonomikoa:**

Neurri horiek oso berriki ezarri direnez, denbora gehiago behar da haien eragin ekonomikoa ebaluatzeko.

## 2. ABIAN DIREN PROIEKTUAK

Proposamenaren data	Txostena	Eskatzailea
2018/8/1	Erradiologiako proba urgenteen eskabide-protokoloak berrikustea	Helena Gómez (Erradiologia)
2019/04/08	Giltzurruneko babesia iododun kontrasteen giltzurruneko balizko toxikotasuna dela eta	Carmen Bacaicoa (Erradiologia)
2019/5/9	Down sindromearen baheketa populazio obstetrikotan	Jesús Zabaleta (Ginekologia)
2019/05/27	C proteina errektiboaren neurketaren kostua/eraginkortasuna beheko arnas-bideko infekzioa duten pertsonengan	M <sup>a</sup> Ángeles Nuin (Oinarrizko Osasun Laguntza)

## 2.1. Erradiologiako proba urgenteen eskabide-protokoloak berrikustea

Proiektu hori Helena Gómezek (Erradiologia) iradoki zion MAPAC batzordeari. Kontua da ideia hori bera CIBERESPen barruan aurkeztu zela Carlos III.a Osasun Institutuaren Osasuneko Ekin-tza Estrategikorako proiektu gisa. Proiektua onetsi egin zen eta abian dago.

**Hartutako neurriak:**

CIBERESPeke arduradunekin jarri ginen harremanetan, gaia zela-eta geneukan interesa azaltzeko. Nafarroako Ospitaleguneko Erradiologia Zerbitzuari gonbita egin zitzaion abian zen proiektuan sar zedin.

## 2.2. Giltzurruneko babesia iododun kontrasteen giltzurruneko balizko toxikotasuna dela eta

**Justifikazioa**

Carmen Bacaicoak (Erradiologia) MAPAC batzordeari helarazi zion interesa zuela zain barneko bidetik emandako iododun kontrasteen giltzurruneko balizko toxikotasunaren aurka giltzurruna babesteko egungo protokoloa berrikusteko, tomografia konputerizatuko probak egiten direnerako. Arrazoiaren jatorria da zalantzak daudela haren eraginkortasunari buruz eta praktika horrek dakarren lan-zamari eta kostu ekonomikoa-ri buruz.

Erradiologia-kontrasteak erabiltzen direnerako giltzurruna babesteko gaur egun indarrean den protokoloak, Nafarroako Ospitaleguneko Etxeko Ospitalizazioko Atalak eta Erradiologia Zerbitzuak eginak (1.1 bertsioa), ezartzen du gomendagarria dela giltzurruna babestea 25 eta 45 ml/min/1,73 m<sup>2</sup> bitarteko iragazketa glomerularra duten gaixoen kasuan, giltzurrun bakarra duten gaixoen kasuan eta giltzurrun-transplantearen aurrekaria dutenen kasuan. Protokolo horretan, giltzurruna babesteko hiru eskema desberdin jasotzen dira.

1. Zain barneko NaCl % 0,9 eta aho bidezko N-Azetilzisteina proba baino lehen eta probaren ondoren

2. Proba baino lehen eta probaren ondoren zain barneko bidetik bikarbonato 1/6 M ematea, eta proba baino lehen zain barneko bidetik eta probaren ondoren ahoz NACa ematea

3. Ahoz hidratatzea eta NAC ematea proba baino lehen eta probaren ondoren, edo soilik probaren ondoren

Hala eta guztiz ere, zalantzak daude giltzurruneko babes-neurrien eraginari buruz protokolo horretan sartutako gaixoen profilen kasuan, bai eta 45 eta 60 ml/min/1,73 m<sup>2</sup> bitarteko iragazketa glomerularra duten gaixo onkologiko eta diabetikoen kasuan ere, erradiologia-probak egiteko zain barneko bidetik iododun kontrastea jarri behar zaienean. Bestalde, berrikuspenak aztertu nahi du nolako eragina duen giltzurruneko babesak bere administrazio-bidearen arabera, eta,aldi berean, determinatu nahi du nola eragina duten hidratazio-soluzioen mota desberdinek eta NACa emateak.

Kontuan hartu beharra dago probaren aurreko aurrehidratatzearako ospitalizazioen zati bat Etxeko Ospitalizazio Zerbitzuak egiten duela, nahiz eta beste zerbitzu askok gaixoak ospitaleratzen dituzten proba egiteko bezperan. Horrenbestez, protokoloak lan eta kostu garrantzitsuak sortzen ditu, funtsean honako hauek direla eta: ospitalizazioak (etxeakoak edo ospitalekoak, hidrataziokoak), baliabide profesionalak (hidrataziokoak etxeetara doazen erizaintzako profesionalak), medikazioa (NACa, serumak) eta perfusio-ponpen erabilera.

**Txostenaren ondorioak (zirriborroa)**

Une honetan MAPAC batzordeari jada txostenaren zirriborroa aurkeztu zaio. Nafarroako Ospitaleguneko Etxeko Ospitalizazioko Ataleko buru María Ruizek eta Nafarroako Ospitaleguneko Nefrologia Zerbitzuko ordezkariak bertaratu ziren.

Halaber, 2019-09-25ean Nafarroako Ospitaleguneko Erradiologia eta Nefrologia Zerbitzuari aurkeztu zitzaion, eta 2019-10-02an Lizarrako García Orcoyen Ospitalean aurkeztu zen. Bilera horretara, arlo horretako Barne Medikuntzako eta Erradiologiako zerbitzuetako ordezkariak joan ziren.

Txostenaren zirriborro honek eskatu du norberaren elaborazioko hainbat metanalisi egitea. Behin-behineko konklusioak honako taula honetan laburbil daitezke:

	<b>Giltzurruneko gutxiegitasuna</b>	<b>Diabetes mellitusa</b>	<b>Giltzurrun bakarra dutenak</b>	<b>Giltzurruneko transplantea dutenak</b>	<b>Onkologikoak</b>
<b>Hidratazioa vs. hidrataziorik eza</b>	Estatistikoki alde nabarmenik ez <u>Iragazketa glomerularra &lt; 45 ml/min azpitaldea:</u> alderik ez.	Estatistikoki alde nabarmenik ez	--	Estatistikoki alde nabarmenik ez	--
<b>Zain barneko hidratazioa vs. Ahozko hidratazioa</b>	Estatistikoki alde nabarmenik ez	--	--	--	--
<b>NAC vs. no NAC</b>	Estatistikoki alde nabarmenik ez	<u>Giltzurruneko funtzio normala:</u> estatistikoki alde nabarmenik ez <u>Giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa:</u> NACaren aldeko diferentziak, zenbaki absolutuetan, baina ez zenbaki erlatiboetan	--	?	--
<b>Hidratazio-motak</b>	Estatistikoki alde nabarmenik ez	--	--	--	--

#### Hartutako neurriak:

Zehaztu gabe.

#### Eragin ekonomikoa:

Ebaluatzeko dago. Ustez altua.

2.3. Down sindromearen baheketa populazio obstetrikotan

#### Justifikazioa

Jesús Zabaletak (Obstetria eta Ginekologia Zerbitzua) MAPAC batzordeari eskatu zion Down sindromearen populazio obstetrikorako baheketa berrikus zezan.

#### Hartutako neurriak:

MAPAC batzordeari informatu zitzaion gai hori berriki Master Amaierako Lan gisa aurkeztu zuela

Prebentzio-medikuntzako espezialista Guillermo Ezpeletak. Jesús Zabaleta eta Guillermo Ezpeleta harremanetan jarri dira gai horri buruz eztabaidatzeko. MAPAC batzordea zain geratu da, jakin nahi baitu gai honi buruzko proiekturik behar den ala ez.

#### Eragin ekonomikoa:

Ez da bidezkoa.

2.4. C proteina erreaktiboaren neurketaren kostua-eraginkortasuna beheko arnas-bideko infekzioa duten pertsonengan

#### Justifikazioa

M<sup>a</sup> Ángeles Nuin (Oinarrizko Osasun Laguntza) proiektu hori egin dadin eskatzen du. Une hauetan, lehen zirriborroa egiteko fasean dago.

## 3. HASIERA EMATEKO ZAIN DAUDEN PROIEKTUAK

Proposamenaren data	Txostena	Eskatzailea
2018/06/08	CK-MB kreatin kinasaren testa miokardioko infartu akutuen diagnostikorako	Adriana Rivero (Laborategia)
2018/06/08	Proteinograma egitea gammadipatia monoklonalaren susmorik ez duten 50 urtetik beherako gaixoetan, eta urtebetean ez errepikatzea	Adriana Rivero (Laborategia)
2018/11/17	Osteoporosiaren prebentzioa kortikoideekiko tratamendua duten gaixoetan	Iñaki Elejalde (Barne-medikuntza)
2019/01/18	Osteoporosia eta kortikoideak dosi altuetan erabiltzea	Federico Bolado (Digestio aparatua)
2019/01/18	Metamizola eta odol-diskrasiak edukitzeko aurrejoera genetikoak	Federico Bolado (Digestio aparatua)
2019/01/18	Honako hauen erabilerari buruzko ebidentzia: serum glukosatua vs. serum fisiologikoa	Federico Bolado (Digestio aparatua)
2019/01/18	AASaren erabilerari buruzko berrikuspena, aldakako eta belauneko kirurgiaren ondorengo tromboembolismoaren profilaxian	Javier Martínez de Morentin (Traumatologia)
2019/05/27	Hatsaren testaren kostua-eraginkortasuna eta <i>Helicobacter pylori</i> aren detekzioa dispepsia duten gaixoetan, edo hura desagerrarazteko tratamenduaren ondorengo jarraipenerako	M <sup>a</sup> Ángeles Nuin (Oinarrizko Osasun Laguntza)
2019/06/06	O-NOZen albuminaren erabilera egokitzea	J. A. García Erce (Odol Bankua)

## 4. PROIEKTUAK LEHENESTEA

Eskatutako proiektuen bolumen handia eta O-NOZek haietako askotan duen interesa direla eta, MAPAC batzordearen ustez egokia da irizpide batzuk ezartzea egin beharreko proiektuak lehenesteko. Irizpideen lehen zirriborro bat badugu, eta datozen egunetan proiektuak lehenesteko prozedura zehaztuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Ordu-  
na

## **Galdera, Nafarroako arkeologia-ondarea babesteko eta zaintzeko hartuko diren neurriei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako arkeologia-ondarea babesteko eta zaintzeko hartuko diren neurriei buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 27ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako arkeologia-ondarea babesteko eta zaintzeko hartuko diren neurriei buruz (10-19/PES-00085). Hauxe da Kultura eta Kiroleko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Errenga aztarnategi arkeologikoko mairu baratzeetako baten gainean ehiza-postu bat ezarri zela Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalari jakinarazi ondoren, azpiegitura hori berehala erretira zedin eskatu zen, Lesakako Udalarekiko lankidetzaz baliatuta. Hala egin zen egun gutxi batzuen buruan, eta egiaztatu zen ondasunean kalterik ez zegoela.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia 1992tik gure erkidegoko aztarnategi arkeologikoak katalogatzen joan da, eta, hartara, Nafarroako Arkeologiaren Inbentarioa izenez ezagutzen dena osatu du. Zehazki, Errengako aztar-

nategia jada 2006an katalogatu zen, eta gaur egun Inbentarioa osatzen duten ia 7.000 aztarnategi arkeologikoen artean dago. Gainera, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen indarrez, monumentu megalitikoak kultur intereseko ondasunak dira, eta, horrenbestez, ondare-babesaren mailarik handiena dute. Inguruabar hori dela eta, harengan eragina izan dezaketen jarduketa batzuk berariaz debekaturik daude eta, nolana ere, aurrez Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren txostena behar dute.

Gainera, Lesakako Udal Plan Orokorren barruan jasota eta babestuta geratzen da ondasuna, halako moduz non bera izanik bere eremuko jarduketa gehienetarako lizentziak ematen dituen, eta horixe da aztergai dugun kasua, bidezko babesak aplikatu ahal izateko. Are gehiago, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Legearen 36. eta 37. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, Lesakako Udalak ukitutako arloa babesteko plan berezi bat izapidetu beharra dauka deklaraturako aztarnategietarako eta haien inguruetarako. Plan hori behin betiko onetsi arte, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren aldeko ebazpena beharko da lizentziak emateko, aipatu den bezala.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **Galdera, meatzaritzaren irudia hobetze aldera Nafarroako Gobernuak eta Geoalcali eta Magna enpresak elkarlanean aritzeko asmoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, meatzaritzaren irudia hobetze aldera Nafarroako Gobernuak eta Geoalcali eta Magna enpresak elkarlanean aritzeko asmoari buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 27ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 10-19/PES-00086 ekimena erregistratu du, eta haren bidez informazioa eskatzen du “MinerÉTICA 2019” izeneko jardunaldiak antolatzeke Nafarroako Gobernuaren, Geoalcaliren eta Magnaren artean izandako lankidetzari buruz. Meategien Atalake emandako informazioan oinarrituta, hona hemen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak informatu beharrekoa.

Galdera parlamentarioaren sarrerako paragrafoan honako hau ageri da:

Prentsaren bidez jakin ahal izan genuenez, Nafarroako Gobernuak, Geoalcali eta Magna lankidetzan arituko dira “meatzaritzaren irudia hobetzeko”, eta “MinerÉTICA 2019” izeneko jardunaldiak antolatu dituzte

Horren aurrean, zehaztu beharko litzateke ondorengo dela “MinerÉTICA”ren xedea, Nafarroako Gobernuak irailaren 13an, jardunaldien aurkezpena egiterakoan, egindako komunikazioaren arabera, “eguneroko jardunean baliabide mineralak duten erabilera ezagutaraztea eta meatzaritza sektoreak gure gizartean betetzen duen tokiari buruzko ezagutza handitzea”, eta “mineralen beharra eta etorkizun iraunkorrean duten garrantzia ezagutaraztea, aztertzea eta herritarrak horren inguruan kontzientziaztea eta sentsibilizatzea”.

Meatzaritza eta mineralak ezagutarazteko ekintza bat da, prentsa-oharrak orobat adierazten duen bezala, irailaren 20etik 22ra Mineralen Euro-

pako Eguna (European Mineral Days) ospatuko baita. “MinerÉTICA” Nafarroako Gobernuak antolatzen du Nafarroako meatzaritzaren sektoreko elkarteekin hauekin batera: Asociación de Fabricantes de Áridos e Industria Minera Extractiva de Navarra (AFARIME) eta Agrupación Empresarial Minera Navarra (AEMINA).

Elkarte horietaz gainera, sektoreko hiru enpresa nagusiek hartzen dute parte: Geoalcali SLU, Magnesitas Navarra SA eta LHOIST. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan, maila sektorialean, aurrera eramandako ekimen bat da.

Lehenengoa. Lankidetzari hori zer esparrutan gauzatzen den:

Zientzia eta Teknologiarik buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legearen 3. artikuluan, legearen xedean artean, honako hauek jasotzen ditu: “Ezagutza zientifikoa herritar guztiei zabaltzea bultzatzea, eta zientziaren dibulgazioari laguntzea” bai eta “ondare zientifikoa, teknologikoa, historikoa eta kulturala handitu eta aberastea” ere.

Mineralen Europako Eguna edo European Mineral Days ospakizunaren harira, 2019ko otsailetik bilera batzuk izan dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko meatzaritzaren arloko organo eskudunaren eta Nafarroako meatzaritzaren sektorearen artean –azken horretan enpresa-elkarteen eta adarreko enpresa nagusien ordezkariak dago–, meatzaritzaren sektorearen eginkizuna gizartean zabaltzeko balizko ekintza batzuk planteatzeko. Ekintza horiek beharrezkotzat jotzen dira gizarteak, oro har, meatzaritzari buruz duen ezagutza mugatua handitzeko.

Esparru horretan gauzatzen da lankidetzari hori, zeren eta “MinerÉTICA” osatzen duten ekintzen izaerari eta kostuari erreparatuta, ez baita administrazio-esparru berariazkorik behar.

Bigarrena. Lankidetzari ari direnen artean zenbat bilera egin dituzten, eta bilera horietako bakoitzaren gai-zerrenda.

8 bilera egin dira; hain zuzen ere, egun hauek:

- Otsailaren 18an.
- Martxoaren 13an.
- Apirilaren 15ean.
- Maiatzaren 7an.



- Maiatzaren 29an.
- Uztailaren 3an.
- Abuztuaren 12an.
- Irailaren 4an.

Maiatzaren 7ko bilerara arte ez zen aipatu mineralen astea edo hamabostaldia antolatzeke aukera. Proposamen horri buruz, maiatzaren 29an eta uztailaren 3an egindako bileretan lan egin genuen, bai eta, modu eskusiboan, abuztuaren 12ko eta irailaren 4ko bileretan ere.

Hirugarrena. Bilera guztien aktak bidaltzeko eskatzen dugu.

Laugarrena. Lankidetzaren esparru horretan eta jardunaldien antolakuntzan konprometitutako aurrekontua galdera hau jasotzen den egunean jada ordaindutakoa zehaztuta.

“MinerÉTICA” jardunaldiak antolatzeak izan duen kostuari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 2.090 euro + BEZa ordainduko du. Zenbateko hori kanpainaren sormenari (diseinua) eta hura publikitate- eta marketin-euskarrietarako egokitzeari dagokie. Gaur den egunean, kopuru hori ordainduta dago.

Kanpainaren aurrekontua –esku-orriak egitea, roll up-a, “Funtsezko mineralak etorkizun jasangarri baterako” erakusketarako panelak, erakusketa aurkezteko panela barne, muntaia eta mantelak– 5.000 euro ingurukoa da, eta parte hartzen duten meatzaritza alorreko enpresa-elkarteek eta meatzaritza-enpresek finantzatu dute.

Enpresa edo/eta elkarte bakoitza berak antolatutako ekintzen kostuez arduratzen da; esate baterako, bisitaldiak edo ate irekien jardunaldiak

edo “Meatzaritzaren V. Topaketa Nafarroan” ekitaldia.

Iruñeko Udalak doan laga du Ingurumen Heziketarako Museoa, mineralei buruzko erakusketa eta tailerrak hartzeko, eta bertan inaugurazioa eta “Meatzaritzaren V. Topaketa Nafarroan” ekitaldia egiteko.

Bosgarrena. Nafarroako Gobernuaren ustez, industria-jarduerako zer beste esparruk behar dute “beren irudia hobetu”?

Ez dagokio Nafarroako Gobernuari bereak ez diren baieztapenei erantzutea.

Horri dagokionez, “MinerÉTICA”ren helburua ez da “meatzaritzaren irudia hobetzea”, baizik eta meatzaritzak eta mineralek gure gizarteari egiten dioten ekarpenaren zabalkundea egitea.

Seigarrena. Ingurumen-, ekonomia- nahiz gizarte-jasangarritasunaren arloko txostenak eta azterlanak, kanpaina hori justifikatzen dutenak.

Halakorik ez dago. Nolanahi ere, ez dugu uste beharrezkoa denik zabalkunde-jardunaldi batzuk antolatzeke, “MinerÉTICA”k izan dituen kostuak kontuan hartuta, halako txostenak eskatzea.

(Ekimenaren xede den gaiari buruzko dokumentazioa bidaltzeari dagokionez, iradokitzen dizugu hura kasuko informazio-eskariaren bitartez eskatzea.)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko urriaren 28an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andrea Geroa Bai talde parlamentarioan sartzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak 2019ko abenduaren 9an aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Geroa Bai talde parlamentarioan sartu dela, ERABAKI DA:

1. Adieraztea idazki horren berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa.**

### *ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak, 2019ko abenduaren 18an egindako bileran eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriarekin bat, onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa. Horren testua erantsitako dokumentuan doa.

Haren azken xedapena betez eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikularekin bat, agintzen da aipatu aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2019ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren aldaketa**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Legebiltzarreko Langileen Estatutua da antolaketa eta langileen alorrean autoaraugintza-printzipioa ezartzen eta bermatzen duen oinarriko araua, Parlamentuaren autonomiaren printzipio orokorretik eratorrita. Lege-maila eta -indarra dauzka, eta hala adierazi dute Konstituzio Auzitegiak nahiz Auzitegi Gorenak.

Langileen Estatutuaren aldaketa honen arrazoia da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak C-72/18 aferan emandako 2019ko ekainaren 20ko epaiari araugintzazko exekuzioa eman beharra. Auzitegi horrek jo du langile kontratatuen ordainsarrietan sartu beharrekoak direla gradu- eta antzintasun-osagarriak eta familia-laguntza, epaian adierazitako zertzeladekin. Estatutuak langile kontratatuentzat ordain-kontzeptu horiek jasotzen ez dituen heinean da beharrezkoa estatutua aldatzea.

Langileen Estatutu indardunaren laugarren xedapen gehigarriak ezarritako prozedurari eta Parlamentuko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren Langileen Estatutua aldatzen da, nondik norako hauekin:

**Lehena.** Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 4.4 artikulua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“4. Langile kontratatuek jasoko dituzten ordainsariak izanen dira betetzen ari diren lanpostuari dagozkionak. Halaber jasoko dituzte graduari dagokion ordainsaria eta emandako zerbitzuengatik antzintasun-saria, salbu eta beste administrazio publiko batengandik jasotzen badute, bai eta familia-laguntza ere”.

**Bigarrena.** Hamargarren xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, honako testuarekin:

“Hamargarren xedapen gehigarria. Gradu-ordainsaria administrazio araubideko langile kontratatuei ordaintzea.

Nafarroako Parlamentuak ofizios ordainduko die administrazio araubideko langile kontratatuei gradu-ordainsaria, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 4 urteko atzeraeragineko efektu ekonomikoekin, kasu bakoitzean aitortutako antzintasunaren arabera”.

**Hirugarrena.** Xedapen iragankor bakarra eransten zaio, honako testuarekin:

“Xedapen iragankor bakarra. Legegintzazko baliozkotzea.

Gradu-aitorpenaren efektuak atzeraeraginez hedatzeak berekin dakar legegintza bidez baliozkotzen direla aitorten hori iraganean Nafarroako Parlamentuko langile kontratatuei ukatu zieten administrazio-ebazpenak, hamargarren xedapen gehigarriko zertzelada berberekin”.

**Laugarrena.** Azken xedapenetako bigarrena aldatzen da, jarraian adierazten den bezala:

“Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Langileen Estatutuaren aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da”.

---

## **Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren aldaketa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko abenduaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa gaurkotze aldera Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egindako proposamena eta Zerbitzu juridikoak horri buruz egindako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Onestea Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren aldaketa, zeinaren testua honekin batera baitoa.

**2.** Erabaki hau eta onetsitako aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orri ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2019ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren aldaketa**

Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren 12. artikulua 2. apartatua aldatzen da. Honako testu hau izanen du hemendik aurrera:

“2. Legebiltzarreko Mahaiak lehendakariaren esku utzitzat ematen da ondasun arruntetako eta zerbitzuetako nahiz material inbentariagarrietako gastuak agintzeko eskumena, baldin eta gastua ez bada 15.000 eurotik gorakoa.

Gastu-aginduak baimen- eta erabilera- edo konpromiso-faseak hartzen ditu bere baitan.

**Azken xedapen bakarra.** Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra”.